

KOSTUEN EGITURA

Balioan oinarritutako enpresa batek kalitatea edo ospeagatik iritsi nahi du bezeroarengana. Kostuan oinarritutakoak, berriz, lehiakideak baino merkeago izan nahi du.

Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik. Bi negozio-eredu mota nagusi bereizten ditugu:

Kostuak bultzatutako negozio-eredua, kostuak minimizatzen bideratzen dituztenak eta beste aldetik balioan oinarritutako negozio-ereduak: enpresen interes handiena ez da kostuak minimizatzea, baizik eta bezeroari eskaintzeko balioa sortzea; berenproduktuen edo zerbitzuen kalitatea zainduz, markak eta abar.

Gure enpresaren kasuan, kostu finkorik ez dugu edukiko, bazkideetako batek garajea jarriko baitu, eta beste batek erramintak, ekoizpen fase osoa betetzeko. Aldakorretan, aldiz, lehengaiak erostekoak izango dira batzuk, eskala ekonomiakoak gainera. Hau da, gehiago produzitzea erabakiko bagenu merkeago lortzerik edukiko genuke. Honez gain, argindarra izango litzateke edukiko genukeen beste gastu aldakorra, lanorduen araberakoa izango zen eta. Webguneari buruz, enpresentzat bereziki zuzendutako eta doakoa den web-orri programa bat ezagutzen dugu, internet bidezkoa. Hortaz, honek ere ez liguke inolako kosturik sortuko. Azkenik, telefonoaren ordainketa erabileraren araberakoa izango litzateke, eta erosleek ez lukete ordainketarik egin beharko, gure kontura joango baita deien kostu osoa.